

molezko» pertsonaia nagusitzen da *Dino: Living High in the Dirty Business of Dreams* biografian: «Sinatra Martinen mendekoa zen. Sinatra oso boteretsua zen, baina morroi adeitsu baten gisara jokatzeko zuten hala mafiarekin nola Martinekin». Benetako Martinen eta pertsonaiaren arteko muga erabat lausoa zen. «Erdi hutsik zegoen barrutik. Inguruan horma gaindiezin bat zuen. Ez zuen intimitaterik. Ez zen pertsonaia bat, Dean Martin zen une oro, bere min guztiarekin (...) Egun, oso bazterrekoa da, baina bere garaian oso famatua izan zen. Ikonikoa zen».

### Izaera humanoa

*The Devil and Sonny Liston* (2000) eta *King of the Jews. New York* (2005) Toschesen beste bi biografía azpimarragarri dira. Biak ala biak kirolari lotuak. Lehenengoa Muhammad Ali boxeolari ospetsuarekin borrokatu zuen, bai eta galtzaile atera ere. James Brownen musikarekin entrentatzen zen, mafiarekin harremanak zituen eta 40 urterekin hil zen, ustez droga gaindosiak jota. Bigarrena Arnold Rothstein kirol enpresari gaizkilearen ingurukoa da. Toschesen ustez, krimen antolatuaren enpresa egitura sortu zuen. Argi dago Toschesek ez zuela eredu moralik bilatzen bere biografietan, bere xede nagusia liburu bikainak idaztea baitzen.

Toschesek bestelako lanak ere argitaratu zituen. Musikaren esparruan, esaterako, oso ezaguna da 1977an argitaratutako *Country: The Biggest Music in America*, gero *Country: The Twisted Roots of Rock and Roll* izenburua hartuko zuena. Country kutsuko musikari aitzindarietan barrena egindako kazetaritza lan aipagarria da, makina bat kondaira eta narrazioarekin jositia. «Luzagarria da. Niri countrya musikalki bost, baina gizon honen eskuetan countrya hazi egiten da: mamuei, hildakoei eta kondenaiozko eternalari buruzko makina bat istorio biltzen du», azaldu du Amatek.

Tosches, finean, bere lan esparrua hankaz gora jartzeko saiatu zen; alegia, rock-and-rola literaturara gerturatzen, kritika espezializatuaren kateetatik askatzen. Amatek bete-betean asmatu du: «Rocka eta rock kritikariak barru-barruan oso txikia den zerbaitez ari dira, izaera humanoarena den zerbaitez handiagorekin lotu ezean. Rocka instrumentu anplifikatuak jotzen dituzten lau tipo baino ez dira; egia esan, ez du batere graziazirik».

## Bilaketa baten errealitate kapsulak


### Irati Majuelo

**E**lena Olaberen lehenda-biziko lan honetan, idazle gazte baten auto-egazutza prozesua ikus dezakegu: nor den, zerk inguratzeko, non egon nahi duen, zer egin. Gaztetasunak berezko dituen etengabeko birdefinizioa eta egiazat emandakoaren zantzian jartzea nabari baitira poema hauen lerro artean.

Artearen Historian lizentziaduna da Olabe, eta oso lotura estua lortu du arte diziplina desberdinen artean. Egituratik hasita, eta Bourgeoisen jarraitzaile izaki, zeldatan antolatu du liburua. Hiru ataletako bakoitzak zelda bat irudikatzen du, haren bidez ezkutuan dagoen egia edo errealitate bat azaleratu nahian: *Existentziaren egitura*-k izateari buruzko hausnarketak biltzen ditu; *Logela gorria* da bigarrena, eta lotuago

dago gorputzarekin eta giza harremanekin; eta hirugarrenak, *Azken goraldia*-k, heriotza eta kontzientzia desagerpena du gaitzat. Beste laugarren atal bat ere badago, *Goraldiaren ostean*, autorea ez duena zeldatzat hartzen, eta errealitatea kapsulatzen joera hori apur bat zabaltzen duena.

Gaiei eta estiloari erreparatuz gero, bilaketa da poema liburua



### 'Zeldak. Gorputz honetatik'

**Idazlea:** Elena Olabe.  
**Argitaletxea:** Balea Zuria.

## Detaleak

### HAUR ETA GAZTE LITERATURA

#### Imanol Mercero


**L**ehen irakurleentzako istorio irakurterraza da. Arreta pertsonaia bakarrean jarrita, hasi eta bukatzen diren horietakoa. Liburuaren azala ikusi besterik ez dago oharretako zertaz ari naizen.

Orriz orri, protagonistak aurrera egiten du –nora ez dakigu–, eronkak gainditzen. Orribiko bakoitzean eronka bat aurkezten da –handia edo txikia–, irakurleentzat ezusteko bat dena, eta amaieran argituak dena. Testuak dinamismo horri indarra ematen dio eskaintzen dituen esaldiekin, aditz laguntzailerik gabekoak, hitz gutxiko oin-ohar xuhurrak diruditenak, irudian agertzen dena deskribatzen digutenak, edo emozioekin lotzen, kasuan-kasuan.

Protagonistaren izaera ez-gizatiarrak ematen duen distantziak baliatzen dira egileak isto-

rioiari intriga eransteko, nor den, zertan ari den eta nora doan ez baitakizkigu amaiera iritsi arte. Badira, ordea, bi detale esanguratsu: kumea da, eta aldean malleta bat darama.

Galderak. Amaiera borobil batekin erantzungo diren galderak –kontatzen diren istorioak– behar ditugu. Dena asmatuta dagoen honetan, detaleek bereizten dituztelako sorkuntzak.



### 'Palmer'

**Idazlea:** Gilles Baum. **Ilustratzailea:** Amandine Piu. **Itzultzailea:** Miren Agur Meabe. **Argitaletxea:** Tarttalo.

hau ardatzen duen elementua: norbere lekuaren bilaketa, identitatearena, idazle gisa egin dezakeen ekarpenarena, baina baita erritmoaren bilaketa, errimarena, sintaxi eta hiztegi jakin batena, erreferentzien bilaketa ere. Hortik abiatuta, esan daiteke Olabek hizkuntza propioa garatu duela, zeldak eraikitzeko zimentuak izan dira aukeratu dituen sintaxia eta lexikoa. Irudi eta simbologia ezohikoak sortzen ditu ideietatik abiatuta, nahiz eta erreferentzia klasikoak izan oinarri. Izan ere, erabiltzen dituen aipamen ugari artean leku berezia hartzen dute arteari, filosofiari eta greziar mitologiari egindako erreferentzia zuzenek, sarri intertestualitate iristeraino. Zenbait poematan testu klasikoaren eta Olaberen idatzen arteko elkarrizketa nabarmena da, erreferentzia izanik poema ulertzeko gakoa, bereziki izenburuan dagoenean. Alabaina, gehienek ez dute irakurketa errazik eskaintzen, sentsazioa ematen baitute betiere zerbaitek ihes egiten dizula.

Esan bezala, idazleak oinarri sendo baten bilaketan dihardu etengabe erortzen ikusten duen

mundu desegonkor honetan. Bizi dugun garaia izaera dekadentea azaleratzen du, gizakiaren degradazioa eta ustelkeria, meritukrazia eta kondizio burgesaren onarpena. Horrelako inguru batean bizitzearen kontraesanak nabari daitezke Olaberen hitzetan, tes-tuinguru artotz batean norberaren lekua non dagoen ez jakitearen noraeza, errealitatearen behin-behinekotasunak sortzen duen ezinegona. Tarteka, ageri dira atzerria eta itzulera kontzeptuak, eta *Natura hila (I, II, III)* ederretan, heriotza. Joan-etorrian egon arren, erdigunea gorputzean duen idazle baten zalantzak biltzen ditu liburua, baina interesgarria da gorputz individual hori nola biltzen den zenbaitetan gorputz kolektibo, *ni*-aren eta gutarren arteko harremanak eta gatazkak bere hausnarketetara ekarritik.

Sarrionandiak hitzaurrean esan bezala, denbora eta patxada eskatzen ditu Olaberen lanak, korapilatsu gerta baitaitezke zenbaitetan. Eta esango nuke hori dela ahots gazte honek (oraingoz) egin digun oharretazpenik garrantzitsuenak: hartu denbora, eta irakurri (bitan, hirutan, lautan!).

## Eskutik helduta bezala

### HAUR ETA GAZTE LITERATURA

#### Imanol Mercero


**I**storio batzuk distantzia batetik begira bezala irakurtzen ditugu, hala kontatzen zaizkigulako, ziurrenera. Beste batzuetan, aldiz, eskutik helduta bezala eramaten gaituzte, gurea ere izango balitz bezala kontatzen zaigulako gertakizuna. Mota horretako da *Nola harrapatu elefante bat* albuma.

Erraz sartzen da bertan, inertziaz, kalterik edo arriskurik jasangarri ez dugula antzemanda. Testuak bagaramatza lehen esalditik, «Elefante bat nahi baduzu, lehenik, elefanteak non bizi diren jakin behar duzu». Eta, halaxe, gure ordezkariaren rola jokatzeko duen haur protagonistaren marrazkiaren bidez, elefante baten bila abiatzen gara: orrialde zuri batean, mapa bat arakatzeko gertatzen gara.

Hurrengo orrialdean, jada «elefanteen herrialdean» gaude. Eta aurrera. Istorioan sartu gara, sartu gaituzte. Zer gertatzen den hurrenak ez dio orain axola. Irakurri liburua, eta jakingo duzu.

Inporta duena da kontakizuna eskuzabala dela, ezusteko betea, bihotz onekoa, eta ikasgai ederrak gordetzen dituela.

Lezio bat sortzaile izan nahi duenarentzat, eta opari bat irakurleentzat.



### 'Nola harrapatu elefante bat'

**Idazlea eta ilustratzailea:** Vanessa Westgate. **Itzultzailea:** Nagore Iratzustabarrena. **Argitaletxea:** Tarttalo.